



## Udalak eta merkatarikari elkarteak

Ekhilur kooperatiba barruan udalek eta merkatarikari elkarteek ezaugarri berezia dute, enpresez eta dende osaturiko sare lokalak defini ditzakete, modu horretan sare horietara diru fluxua bideratuaz.

Udalei dagokienez, herritarren esku jartzen duten dirua, dela laguntza, dela sari dela subentzio, herriko ehun enpresarialera bideratzeko lanabes moduan erabili dezakete Ekhilur. Gizarte-laguntzak kudeatzen ere lagun dezake Ekhilur-ek.

Merkatarikari elkarteek, bestalde, elkarte horietako bazkide diren dendetan erosketak egitera sustatzeko lanabes indartsua da Ekhilur. Horretarako sare lokalean baino gastatu ez daitezkeen deskontu geroratuak bezalako estrategiak defini ditzakete edo Ekhilur-bonoa bezalakoak. Ekhilur-bonoa finean hobaridun erosketak litzateke, bezeroak 20 euroekin 25 puntu Ekhilur izango lituzke sare propioan edo, hala erabakiz gero, besteren batean gastatzeko.

Udalek eta merkatarikari elkarteek ordaindu beharreko kopurua gainerako bazkideek ordaintzen duten berdina da, 50€-ko ekarpena kapital sozialari, baja emanaz gero, jaso daitekeena. Horrezaz gain, definitu duten sarea aktibo mantentzeko euro bat hilean sareko enpresa eta denda bakoitzeko.

Ekhilur txartel propioa eduki nahi izatera, bere funtzionamendu eta kostuak enpresentzako txartelena bezalakoak izango dira.